

## Grigory Sokolov pianistak Beethoven eta Schuberten sonata handiak interpretatuko ditu Kursaal Auditorioan

- Egitarauan, Beethovenen gaztaroko **4. Sonata** eta **Sei bagatelak op. 126**, lehenengo zatian, eta Schuberten **21. Sonata** ikaragarria, bigarreanean.
- Sokolov egungo pianista onenetako bat da eta, Hamabostaldiaren lagun leiala, 2021ean eta 2023an jo zuen azkenekoz jaialdian.
- Sarrerak quincenamusical.eus webgunean eta Kursaleko eta Victoria Eugenia antzokiko leihatiletan salgai.

Daniil Trifonov, Mahler Chamber Orkestrarekin batera, Daniel Hardingen zuzendaritzapean, abuztuaren 6an Kursaal emandako kontzertu arrakastatsuen ondoren, ostegun honetan, abuztuaren 13an, Kursaal Auditorioan (20:00etan) Musika Hamabostaldiak pianoarekin beste hitzordu garrantzitsu bat izango du, Grigory Sokolovekin, hain zuzen. Trifonov oinordeko duten pianista handien belaunaldi baten ordezkari eta gaur egungo musikaririk mirestuenetako bat den Sokolovek klasizismoaren eta lehen erromantizismoaren arteko trantsizioan oinarritutako errezitala emango du, Beethovenen eta Schuberten lanekin.

**Grigory Sokolov** (Leningrado, 1950) 1966an Moskuko Tchaikovsky Lehiaketa ospetsua irabazi zuen, eta lehiaketaren historiako irabazlerik gazteena izaten darrai. Garaipen haren ondoren, pianoaren mito bizi bihurtu zen pixkanaka, eta **bere jotzeko moduagatik nabarmendu zen: instrumentuaren tinbre-kalitateak lehentasuna du beti, interpretazioen adierazpen-genialtasunaren zerbitzura, purismo estilistikoaren zerbitzura baino gehiago, iraganekeo pianista handien modura** (hala nola Emil Gilels, Sokoloven hastapenetan garrantzizkoa; Maria Yudina, Arturo Benedetti Michelangeli edo Arthur Rubinstein, Sokolovek bere erreferente nagusizat jotzen dituenak). Bere errepertorioa zabala da garai eta estiloetan, baina oso hautatua – inoiz ez ditu grabatu ez integralak ez inongo egileren ziklo osoak – eta horretan, klasiko handiekin batera, leku nabarmena betetzen dute barrokoko konpositoreek: Rameau, Couperin, Byrd edo Bach. Sokolovek pianoan interpretatzen darrai egun nagusiki klabezinistek interpretatzen duten errepertorio hori.

Sokolov Europako kontzertu areto eta jaialdi ospetsuenetako ohiko gonbidatua da, eta munduko zuzendari garrantzitsuenekin lan egin du. Lan egin duen orkestren artean, nabarmentzekoak dira New Yorkeko Orkestra Filarmonikoa, Montrealgo Orkestra Sinfonikoa, Municheko Orkestra Filarmonikoa, Leipzigeke Gewandhaus, Londresko Philharmonia edo Amsterdamgo Concertgebouw. **Sokolovi buruz esan ohi da artista iheskorra dela, bere ibilbideko etapa luze batean ez baitzuen ia estudioko diskorik grabatu, ezta elkarriketarik eman ere. Musika-negozioaren alderik mediatikoenetik urrun egoteak musikarekiko erabateko kontzentrazioz jokatzeari erantzuten dio, bere interpretazioen trinkotasun intelektualari, eta horrek Sokolov publikoak ez ezik pianistek ere mirestea eragin du;** izan ere, sarri izaten dira haren kontzertuetan. Gainera, bere errezitaletan oso **eskuzabala** izateagatik da ezaguna: hiru ordu inguru irautera ere iristen dira eta **bis ugari eskaini ohi dizkio entzulegoari**.

Grigory Sokolov laurogeita hamarreko hamarkadan aritu zen Donostian estreinakoz eta Musika Hamabostaldian 2005, 2007, 2011, 2015, 2021 eta 2023ko edizioetan izan da. Bere azken errezitaletan, Sokolovek bi egileren lanaren inguruan osatu ditu egitarauak: 2021ean Chopin eta Rachmaninov, eta 2023an, Purcell eta Mozart. Oraingoan, klasizismoaren eta erromantizismo alemaniarraren artean zubia eraiki zuten bi konpositore hautatu ditu: Beethoven eta Schubert. Sokoloven programetan sarritan elkarrekin izaten dira, eta 2020an disko bat eskaini zien Deutsche Grammophon zigiluan. Errezital honetarako aukeratu dituen obrak, ordea, askoz ere lehenago interpretatu zituen, 1991n grabatu baitzituen Beethovenen sonatak, eta handik urtebetera, Schubertena.

Kontzertuaren lehen zatian, Sokolovek **Beethovenen** piano-katalogoko bi mugarri jorratuko ditu: **4. Sonata mi bemol maiorrean, op. 7**, bere garaian "**Sonata handia**" bezala ezaguna, bere ezohiko

hedapen formal eta handinahiagatik, eta ***Sei bagatelak, op. 126***, konpositoreak pianorako argitaratu zituen pieza laburren azken zikloa. 1796-1797 inguruan idatzia, *op. 7an* Beethovenek, gaztea izanda ere, hizkuntza propioa erakusten du : lehen mugimenduaren kemen erritmikoa eta energia ia orkestrala izaera errezitatibo eta sakontasun adierazkor handiko *Luzearekin*, umorez beteriko *Allegroarekin* eta amaierako *Rondo kantabile* bezain urduri batekin konbinatzen ditu. Oso bestelakoa da *op. 126 Bagatelen* unibertso kontzentratua ; 1823-1824 inguruan konposatuak, horietan Beethoven berantiar batek konpas gutxiko miniaturretan aberastasun harmoniko harrigarria, muturreko izaera-kontrasteak eta Erromantizismoa erabat aurreratzen duen askatasun formala kondentsatzen ditu.

Bigarren zatia **Schuberten 21. Sonata si bemol maiorrean piezari** eskainiko dio oso-osorik. Schuberten pianorako sonatetan azkena, erreperitorio erromantikoaren gailur eztaba daezinetako bat da. 1828. urtearen amaieran, hil baino hilabete gutxi batzuk lehenago idatzia, lau mugimendutan zehar obrak atmosfera meditatibo eta monumentaleko diskurtsoa garatzen du ; azaleko itxurazko baretasuna bat-bateko modulazio harmonikoekin batera agertzen da, baretasun horren azpian kezka-izpiak ageri dira. Hasierako *Molto moderato*-tik, mugimendu guztiaren gainean itzal gisa antolatzen da bere trino ospetsua eta *do sostenido minorrean* dagoen *Andante sostenuto* minkorretik eta *Scherzo* argitsutik, *Allegro ma non troppo final* kementsu eta baikorreraino, sonata bizitzaren, denboraren eta heriotzaren hurbiltasunaren gaineko hausnarketa sakon gisa ikusten da. Bere emankizunetan, Sokolovek sarritan aztertu ohi du gai hori. Elkarrekin entzunda, Beethovenen eta Schuberten bi sonata horiek XIX. mendeko lehen hamarkadetan musika-hizkuntzan, eta bereziki piano-hizkuntzan, gertatu zen bilakaera ikaragarriaren irudi argigarria eskaintzen dute.

**Sarrerak quincenamusal.eus** webgunean eta **Kursaaleko eta Victoria Eugenia Antzokiko leihatiletan** eros daitezke.

**GRIGORY SOKOLOV** pianoa  
**Abuztuaren 13 osteguna. 20:00. Kursaal Auditorioa**